



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

MEDIKUNTZA
ETA ERIZAINZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE MEDICINA
Y ENFERMERÍA

ERIZAINZAKO GRADUA
GIPUZKOA
GRADO EN ENFERMERIA

2022/2023 ikasturtea

Gradu Amaierako Lana

TRANSEXUALITATEAREN NORMALIZAZIO GOIZTIARRAREN GARAPENERAKO OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMA.

Nahia Lertxundi Segurado

LABURPENA

SARRERA: Transexualitate hitza geroz eta gehiago entzuten den arren, oraindik ezjakintasun handia dago. Zer esanik ez nerabeen artean. Kontua da, jaioberriaren generoa ezagutzeko genitalei begiratzen zaiela, baina, genero-identitatearen ezartzea, komunikazio berbalaren bitartez izan beharko litzake. Ondorioz, jaiotzean ezarritako generoarekin bat ez datozen, eta gizarte heteronormatiboak normaltasunetik at daudela kontsideratzen dituen nerabeek transfobia hitzez ezagutzen den jazarpena jasaten dute. Horrela, haien garapen psikosozialean zailtasunak izateaz gainera, beren buruarekiko autopertzepzio eta maitasunean ere desabantailak dituzte. Horregatik jaio da proiektu hau, adin goiztiarretik transexualitatearen existentzia ezagutu, ekintza transfoboak identifikatu eta harreman osasuntsuak eraikitzekeo baliabideak eskaintzeko.

HELBURUA: Transexualitatearen normalizazio goiztiarraren garapenerako, 11-12 urte bitarteko nerabeei bideratuko osasun-hezkuntza baten diseinua burutzea.

METODOLOGIA: Proiektuaren justifikazioa garatu zein helburu pedagogikoak identifikatu ondoren, edukiak garatzeko, bilaketa bibliografiko datu-base desberdinak erabiliz burutu da. Baita, beste zenbait web-orri, liburu, gida eta aldizkari bidez ere.

PLANGINTZA: Gaiaren inguruan ezagutzarik ez duten nerabeak transexualitatean trebatzeko, bost saiotan banatu den osasun-hezkuntza programa bat antolatuko da. Edukiak bost gai-arlo desberdinetan banatuko dira, bakoitza saio batean landuz. Helburu espezifikoak betetzeko, jarduera desberdinak burutuko dira, beti ere xede-taldearen parte-hartze aktiboarekin. Osasun-agente desberdinek hartuko dute parte, saio eta xede-taldeari egokitutako baliabideak erabiliko direlarik. Helburuak bete diren baloratzeko, ebaluazio-tresnak ere sortuko dira.

EKARPEN PERTSONALA: Gizarte heteronormatiboak, genitaletan oinarrituta bakoitzari esleitu dion generoarekin bat ez egotea eta identifikatzea, ez da lan erraza. Zer esanik ez, sentitutakoa komunikatu eta ondorengo transfobia bizi eta jasatea. Horregatik, gaur egungo nerabeak aniztasunean hezi beharko lirake, bizitzeko dauden aukera guztiak ezagutarazi eta harreman osasuntsuak eraikitzekeo aukera eskainiz. Azken finean, ezagutza boterea baita.

HITZ-GAKOAK: transexualitatea, hezkuntza, nerabeak, transexualitatearen normalizazioa.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
1.1. OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMAREN JUSTIFIKAZIOA	2
1.1.1. Transexualitatearen tamaina	2
1.1.2. Garrantzia	4
1.1.3. Urrakortasuna	6
1.2. ARRISKU-FAKTOREAK	10
1.3. XEDE-TALDEA	11
2. HELBURUA	12
2.1. HELBURU NAGUSIA	12
2.2. BIGARREN MAILAKO HELBURUAK	12
3. METODOLOGIA	13
4. OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMAREN PLANGINTZA	14
4.1. XEDE-TALDEA	14
4.2 HELBURU PEDAGOGIKOAK	14
4.1.1. Helburu orokorra	15
4.1.2. Bigarren mailako helburuak	15
4.3. HEZKUNTZA EDUKIAK	15
4.4. METODOLOGIA PEDAGOGIKOA	16
4.5 BEHARREZKO BALIABIDEAK	27
5. EBALUAZIOA	28
5.1. EMAITZEN EBALUAZIOA	28
5.2. PROZESUAREN PROGRAMAZIOAREN EBALUAZIOA	28
5.3. EGITURA ETA BALIABIDEEN EBALUAZIOA	28
6. EKARPEN PERTSONALA	29
7. BIBLIOGRAFIA	30
8. ERANSKINAK	34

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: Adinaren arabera jarrera autolesibo eta suizidak dituzten gazte eta gazte-heldu transexualen proportzioa.	3
2. Taula: Lehen saioko antolaketa.....	17
3. Taula: Bigarren saioko antolaketa.	19
4. Taula: Hirugarren saioko antolaketa.	21
5. Taula: Laugarren saioko antolaketa.	23
6. Taula: Bosgarren saioko antolaketa.	25
7. Taula: Saio bakoitzean beharko diren baliabideak.	27

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa: Lehen aldiz artatutako pertsonen kopurua, urtearen eta adinaren arabera.	10
---	----

ERANSKINEN AURKIBIDEA

1. Eranskina: Genero disforiaren detekzio goiztiarrerako adierazleak.	34
2. Eranskina: Arazo psikosozialen detekziorako erdi-egituratutako elkarrizketa eredua.	34
3. Eranskina: Datu-base desberdinetako bilaketa-estrategiak.	35
4. Eranskina: Barneratze- eta kanporatze-irizpideak.	36
5. Eranskina: Programa ezagutarazteko, eskolako zuzendariari bidaliko zaion informazio-mezua.	37
6. Eranskina: Baimen-informatua.	38
7. Eranskina: Edukiaren azpigaietako sailkapena.	39
8. Eranskina: Osasun-hezkuntza programaren antolaketa.	40
9. Eranskina: Hezkuntza-teknikak.	41
10. Eranskina: Letra-zopa eta definizioen fitxa.	42
11. Eranskina: Lehenengo saioa ebaluatzeke Kahoot-a.	43
12. Eranskina: Termometro jolaseko galderak.	44
13. Eranskina: Bigarren saioa ebaluatzeke Kahoot-a.	44
14. Eranskina: Itxurazko egoera.	45
15. Eranskina: Transfobia azaltzeko PowerPoint-a.	46
16. Eranskina: Hirugarren saioa ebaluatzeke Kahoot-a.....	48

17. Eranskina: Laugarren saioa ebaluatzeko Kahoot-a.....	49
18. Eranskina: Gure Kaiola abestiaren letra zatia.....	50
19. Eranskina: “Nor naiz ni?” fitxa.....	51
20. Eranskina: Xede-taldearen azken ebaluaziorako galdetegia.....	52
21. Eranskina: Osasun agenteentzako ebaluazioa.....	54
22. Eranskina: Xede-taldearentzako ebaluazioa.	56

GLOSARIOA:

1. Generoa: Pertsonak esleitutako sexuaren arabera sailkatzeko, historikoki eraikitako ezaugarri sozial eta kulturalen multzoa da. Zakil edo baginarekin jaio izanagatik, haiengandik espero diren jokabideei erreferentzia eginez.
2. Sexu-identitatea: jaiotzean ezartzen zaigun sexu biologikoa, normalean gure genitalak maskulinoztat edo femeninoztat jotzean.
3. Genero-identitatea: Gizarteak feminitatearen eta maskulinitatearen berezkoztat jotzen dituen ezaugarriak bereganatuz, banakoa sexuaren arabera multzo batean sailkatzeari deritzo. Baita ez-araututako identitateetan ere, transexual eta transgeneroak kasu.
4. Genero disforia: gizabanakoak bere genitalai adierazitako higuina.
5. Heteronormatibitate: Patriarkatuak ezarritako erregimen sozial, politiko eta ekonomikoa, eremu publikoaren zein pribatuaren barruan hedatzen dena.
6. Zisgenero: Jaiotzean esleitu zaion sexuarekin bat datorren generoa duen pertsonari deritzo.

1. SARRERA

Azken aldian, transexualitate hitza gehiago entzuten den arren, gutxiak dakite honen benetakoa esanahia. Zer esanik ez, aipatutakoa biltzen duen sexu-aniztasun kontzeptuak atzean daukana.

Izatez, aniztasuna, pertsonen desberdintasunak berdintasunaren ikuspegitik goraiapatzeari deritzo. Hortaz, sexu-aniztasunak, erakarpenaren, portaeraren, identitatearen, adierazpenaren, orientazioaren, harremanen eta sexu-harremanen alderdi guztiak biltzen ditu, sexualitatearen espektro guztiak barneratzen dituelarik, baita generoa¹ ere (1).

Kontua da, gehienetan mutilek zakila eta neskek alua dutela. Hori dela eta, jaioberriaren sexu-identitatea² zein genero-identitatea³ ulertzeko, jaioberriaren genitalei begiratzen zaie. Baina, genero-identitatearen ezartzea denbora eta komunikazio berbalaren bitartez egiten den zerbait da. Izan ere, bi urtetatik aurrera hasten gara ezaugarri fisiko maskulino eta femeninoak desberdintzen (2). Hiru urte ditugunerako aldiz, badakigu gure buruaren genero-identitatea zein den, beti ere, gizarteak genero bakoitzarentzat berezkozat jotzen dituen genero-roletan oinarrituta. Bost urtetatik aurrera, sexu-organoei buruz hitz egiten hasten gara, bakoitzaren nortasunaren inguruan gogobetetze maila handia izaten delarik. Zazpi urte bete bitarte ordea, arropa, ilea, jarduera edota genero bakoitzeko rolekin erlazionatzen diren elementuak aldatuz, norberaren sexua alda daitekeela pentsatzen dugu, (3). Aldi berean, adin tarte horretan (5-7 urte) konturatzen gara norberaren sexuaren iraunkortasunaz. Baina, 7 urte bete arte genero-identitatea guztiz sendotu gabe dagoela uste da, autopertzepzioa ez baita guztiz kontzientea eta egonkorra. Horregatik, eta genero-identitateak prozesu mentalekin zerikusia duelako, haurrak bere genero-identitatea zein den komunikatzera itxoin behar da (2,3).

Haurren gehiengoa, jaiotzerakoan genitaletan oinarrituta esleitu zaion generoarekin bat datorren arren, hau da, sexu biologikoarekin, badaude desadostasuna adierazten duten haurrak ere. Izatez, azken hauek gaur egun gizartean lekua egiten ari den eta trans izenez ezagutzen dugun kolektiboaren parte izango lirateke.

Askotan transgenero eta transexual kontzeptuak sinonimotzat jotzen ditugu, baina biak lehenago aipatutako “trans” izenez ezagutzen dugun kolektiboaren parte diren arren, desberdintasun nabariak dituzte. Izan ere, pertsona transgeneroa, jaiotzean esleitutako sexuarekin bat ez datorren genero-identitate edo -adierazpena duen pertsona da, ez duena zertan beren gorputza kirurgia edota hormona bidez eraldatu. Aldi berean, transexuala den pertsona berdin sentitzen den arren, bere ezaugarri sexual primario zein sekundarioak interbentzio (kirurgiko zein farmakologiko) bitartez eraldatuko ditu. Beraz, transgenero kontzeptuak transexual kontzeptua barneratzen du (1,4,5).

1.1. OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMAREN JUSTIFIKAZIOA

1.1.1. Transexualitatearen tamaina

Kolektibo honen parte diren pertsonen kopurua zehaztea zaila da, hainbat arrazoiengatik. Izan ere, orain arte, diskriminazioa jaso duen eta gizarte modernoan ezkatututa egon den talde bat izan da transexualena, bereziki, pubertaro aurreko gazte eta haurren kasuan. Horregatik, ez daude transexual kopuruaren prebalentzia eta intzidentzia datu zehatz-mehatzik, oro har, ikerketak ez direlako gauzatu edo estimazio errealistak lortzea oso zaila delako (4).

Halere, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako gida batean, oro har Europako herrialde desberdinetan burututako 12 azterlanen meta-analisan zehaztutako prebalentzia, 100.000 biztanleko 4,6 pertsonakoa zen; 6,8 emakume eta 2,6 gizon transexual, hain zuzen ere (4). Bestalde, Pedro Gonzalez doktoreak 2009 eta 2020 urte bitartean egindako ikerketan hurrengo adierazi zuen: Espainiako autonomia-erkidego bakoitzean egindako guztien analisia egin ondoren, 10.000 biztanleko kasuen proportzioa 0.3 eta 2.2 bitartekoa dela Espainian, emandako bi datuak bat datozelarik (6).

Gainera, egindako ikerketari esker, Euskadiko pertsona transexualen prebalentziari buruzko datu zehatzagoak ere bildu ziren, izan ere, Osakidetzak duen Genero Identitatearen Unitatean (GIU) arreta eskatu zuten pertsonen kopurua erreferentziatzat hartuta, Euskadin transexualitatearen prebalentzia, 10.000 biztanleko 2.4 kasukoa dela zehaztu zen (6). Bestalde, “Chrysallis Euskal Herria” elkarteak zera dio, transexualitate-egoeran dauden 2 eta 16 urte

bitarteko adingabeen prebalentzia-tasa dezente handiagoa dela Euskadin zein Nafarroan. Izatez, Nafarroan, elkarteko kide diren eta ordurako trantsizioa burutu duten nerabeen tasak, 10.000 biztanleren artean, 1 transexuala denaren datua gainditu du (4,5).

Nabarmentzekoa da ere, gutxiengo sexualen kolektiboaren artean, transexual eta transgeneroena gehien gutxiesten dena dela. Eta beraz, diskriminazio, irain eta erasoak jasateko aukera gehiago dituzte, baita gorroto-krimenen biktima izateko ere. Ez hori bakarrik, askok bizitzen duten jazarpena oinarritzat hartuta, jarrera autolesiboak zein pentsamendu suizidak garatzeaz gainera, egoerarik muturrekoenetan suizidioa ere gauzatzen dute (7).

Espainia mailan gertaera honen adibide garbitzat daukagu Andaluzian egindako ikerketa batetik lortutako datuak: parte hartutako nerabe transexualak 197 izan ziren, horietatik %22,8ak suizidio-saiakerak aitortu zituen, baita %52ak pentsamendu suizidak izan zituela adierazi ere (8). Izatez, urte berean egin zen eta ikerketa hartako datuak berresten dituen beste atzera begirako ikerketa bat ere dago. Valentziako genero-identitatearen unitatea erreferentziatzen hartuta zera ikusi zen, pentsamendu suizidak 10 eta 19 urte bitarteko nerabe transexualaetan, gazte-heldu transexualaetan baino ohikoagoak direla (*ikus 1.taula*).

1. Taula: Adinaren arabera jarrera autolesibo eta suizidak dituzten gazte eta gazte-heldu transexualen proportzioa. Iturria: (9)

	10-19 urte bitarte	20-35 urte bitarte
Idea autolesiboak		
Bai	%43	%25
Ez	%57	%75
Jarduera autolesiboak		
Bai	%37	%23
Ez	%63	%77
Idea suizidak		
Bai	%52	%46
Ez	%48	%54
Suizidioa		
Bai	%20	%21
Ez	%80	%79

1.1.2. Garrantzia

Nerabea haurra denetik, familia eta gizartearengatik influentziatua dagoen genero jakin batean kokatzen da. Hau da, ikuspuntu heteronormatiboarekin⁵ bat datozen jarrera, sentimendu eta gustuak barneratzen dituzte, matrize bitarra indartuz eta genero-rolak sustatuz. Hori dela eta, jaiotako sexuarekin bat ez datorren nerabeak, bere egoera adierazi eta nola sentitzen den adierazteko zailtasunak izan ditzake. Baita adierazi ondoren ere, zailtasun psikologiko, fisiko zein sozialak garatu baititzaizkete, transfobia izenez ezagutzen diren jarrerengatik batik bat. Izatez, transfobia, zera da, gizarteak esleitutakoa alde batera utziz, bestelako genero-identitatea duten pertsonetara gorrotoa edo ezinikusi sakona (10,11,12).

Nerabe transexual askok arazo psikosozialak zein osasun mentalekoak izaten dituzte, gizartean onartuak izateko aurre egin behar dieten erronken eraginez, gehien bat. Arazo psikosozialen artean sartzen dira familiaren eta adin berdinekoen gaitzespena, ingurunearen jazarpena, jasandako abusuak, lege-arazoak, tratamenduetarako laguntza ekonomikorik eza edota eskola-arazoak (13).

Azken batean, mina eragiten dieten pentsamoldeen etengabeko zorabioan dauden haurrak dira, eta beharrezko laguntza ez izateak are gehiago zapuzten ditu. Askotan, sentitzen duten sexu-identitatearen arabera bizitzeagatik erru-sentimendua agertzera iristen dira, haien garapen-etapetan bakardadea ohikoa izanik, helduaroan ere irautera iritsiz (14).

Azterlanek erakusten dutenez, familia-ingurunea da sozializatorako dagoen lehen gunea, eta beraz, bertan gertatzen dira lehen esperientzia afektibo eta sexualak (10). Horregatik, demostratua dago transexuala den nerabearen familiak duen jarrerak, honen garapenean duen eragina. Izan ere, familia-isiltasunak, heteronormatibitatea ezartzeak, diskriminazioak, etsaitasunak eta genero-identitatearen izaera ez onartzeak eragin negatiboak dituzte nerabearen garapenean, genero-identitatearekin lotutako baliabideen eskuratzean edota gizarteratze-prozesuan (11).

Sozialki, nerabe transexualak desabantaila-egoeran daude gizartean, gainerakoekin alderatuta. Izan ere, diskriminazio etengabea jasaten dute, gizarteak heteronormatibitatea arautzat hartuta, “normaltasunetik” at daudelako baztertu egiten dituzte. Hau da, normaltzat

jotzen ez den beste edozein genero-identitatek marjinatua zein baztertua izatea eragiten ditu (14).

Ez hori bakarrik, nerabe transexualak konplikazio gehiago ere baditu, eskola-ingurunea, batik bat. Orokorrean aniztasunarekin konprometitua dagoen erakunde bat den arren eskola, legeak horrela diolako, bertako parte-hartzaileek errespetua mantentzea ez da guztiz egiazkoa. Horren aurrean, nerabe transexualen eskola-desertzioaren tasa ohikoagoa bihurtu da, ikasle zein irakasle askoren irainak, burlak eta erasoak jasaten dituztelako. Honi, gaur egungo hizkuntzan, *bullying* deritzo, aurreiritzietan oinarritutako biktimizazioa, larderia eta jazarpena sentitzen baitute (10,11).

Aipatutakoa, 2019an M. Johns eta abarrek egindako ikerketan egiaztatu zen. Indarkeriaren ondoriozko biktimizazioaren prebalentzia, handiagoa izan baitzen ikasle transgeneroen artean, mutil eta neska zisgeneroen⁶ artean baino. Izatez, nerabe transgeneroen %26,4ak indarkeria fisikoa jasan zuen eskola-ingurunean noizbait. Ez hori bakarrik, ikasle transgeneroek, zisgeneroek baino suizidio-arrisku handiago daukatela ere ondorioztatu zen (15).

Errealitate honek psikopatologia eta nahi ez diren beste egoera batzuk areagotu ditzake populazio honetan; distimia, depresioa, antsietatea, estresa, fobiak, autoestimua baxua, automedikazioa, eskola-errendimendua baxua... Gainera, arrisku-jarrerak ere areagotzen dira, hala nola, autolesioak, ideia suizidak, elikadura-portaeraren nahasmenduak, sexu-transmisioko gaixotasunak edota droga-abusua (9,10,16).

Izatez, hainbat ikerketek transexualak diren nerabeen %45ak komorbilitate psikiatrikoren bat dutela demostratu dute, depresioa, antsietatea eta autolesioak nabarmentzen direlarik. Populazio horretatik, diagnostiko psikiatriko baten prebalentzia %31ekoa da trans haurretan (3-9 urte bitartean), ohikoena arreta-defizitagariko nahasmendua delarik. Trans nerabeetan aldiz, 10-17 urte bitartean, prebalentzia horrek nabarmen egiten du gora, %71ra iritsiz, eta depresioa da lehena (17).

Itxurari dagokionez, transexualen gehiengoak generoaren inguruan eraikitako estereotipoak onartzen dituzte, sexu bakoitzari gizartean onartuta eta normalizatuta dauden rol, jarrera, portaera eta ezaugarri desberdinak esleitzen dizkieten ezaugarrietan identifikatuz.

Hortaz, transexualek haien itxura fisikoa birmoldatzera jotzen dute, aldaketa asko inplikatzan dituelarik. Izan ere, haien helburua, lehen eta bigarren mailako ezaugarri sexualak egokituz, sentitzen diren generora hurbiltzea da (4,9).

Ikus daitekeenez, genero-adierazpenen dibertsitatearen espektroa askotarikoa da eta haren parte diren guztiek, osasun-arretarik eskatzen ez duten arren, guztiek merezi dute zerbitzu publikoen errespetua eta arreta. Transexualek egin ohi duten interbentzio mediko-kirurgikoaren maila ere asko aldatzen da; pertsona bakoitzak norberaren genital eta bigarren mailako sexu-ezaugarriekin duen adostasun- edota gaitzespen-maila aldakorra baita.

Halere, oraindik ez dut ezaugarri fisikoen asebetetzea aztertu eta ebidentzia maila handia daukan artikulurik aurkitu. Nolanahi ere, badago Kattalin Miner idazleak 2019an argitaratutako testigantzazko liburua (18). Narrazioan zehar, idazleak bizitako egoera erreal bat ardatzat hartuta, transexuala zen lagunak bere gorputz ideala lortzeko ezintasunean, bere bizitzarekin akabatu zuela kontatzen du. Hau da, mutila zen nerabe transexualak, zituen ezaugarri femeninoak zirela eta, bere fisikoarekin zeukan asebetetze-maila baxua zen. Kasu honetan, bera arduratzen zuen ezaugarria, altuera, aldaezina zelako.

Aipatutakoez gainera, alderdi pertsonala ere hartu behar da kontuan, sufrimenduaren, minaren eta bakardadearen ondorio den higadura psikologiko eta pertsonalak ere kalte egiten baitie garapen pertsonalean. Kontua da, aurre egin beharreko egoera gogorrek eraginda, nerabe transexualek ez daukatela zisgeneroek dauzkaten erraztasunak garapen psikologiko zein psikomotorrerako. Azken finean, jaiotzetik genero-aldaketa burutu arte, haiekin bat ez datozen identitateak esleitzen zaizkie, genero-roletan oinarritutako jantzi eta jolasak erakusten baitzaizkie, gizabanakoaren haurtzarotik aurrerako garapen pertsonalari kaltea eraginez (19).

1.1.3. Urrakortasuna

Kolektibo hau gaur egungo gizartean gutxinaka bere lekua egiten doanez, geroz eta ikusgarritasun gehiago dauka. Eta beraz, erabateko normalizaziotik urrun gauden arren, gizartean onarpen-maila, zein transexualentzako arreta hobetzera bideratzen diren baliabideak

handitzeak (lege-esparru, hezkuntza-sistema edota osasun-zerbitzuen aldaketak), gizon eta emakume transexualentzat irisgarriagoa eta eramangarriagoa den trantsizio bat hastea ekarri du (6). Izan ere, transfobiak dakartzkien sufrimendua eta edozein motatako jazarpenak ekiditeko, prebentzio maila desberdinetan ematen ari dira aurrera pausuak.

Lehen milako prebentzioa aztertuz, alde batetik, transexualitatea despatologizatzeo nahian, gaixotasunen eskuliburuetan, nahasmenduaren desklasifikazioa bilatu da. Gainera, transexualek eska ditzaketen tratamendu medikoetan, beren buruak protagonista eta subjektu aktibo gisa onar ditzatela eskatu da ere, beren gorputzetan burutu beharreko aldaketak, autonomia eta erantzukizunez erabakitzeko (4). Ez hori bakarrik, 2018an aurrera pausu bat eman zen kolektiboarentzat, Osasun Mundu Erakundeak (OME) transexualitatearen despatologizazioa ofizial egin baitzuen. Hau da, trastorno mentalen ataleko trans kode guztiak ezabatu ziren Clasificación Internacional de Enfermedades-10etik (CIE-10). Bestalde, “genero-inkongruentzia” kode berri bat sartu zen 17.atalean, bi azpi-kode dituelarik: genero-inkongruentzia nerabezaroan eta genero-inkongruentzia haurtzaroan (5,20,21).

Gauzak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2012an transexualitatearen inguruko lege berri bat atera zen: ekainaren 28ko 14/2012 legea, transexualak beren genero-identitateagatik ez baztertzea eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Lege honen xedea, transexualek euskal administrazio publikoetatik arreta integrala eta beren beharrian mediku, psikologiko, juridiko eta bestelakoetara egokitutakoa jasotzeko duten eskubidea bermatzea da, gizarte-bizitzaren eremu guztietan, zerbitzu publikoetan batez ere, beren askatasuna babestuz (20,21).

Horrez gainera, aurten, 2023ko martxoaren 1ean, 4/2023 legea indarrean sartu da. Honek, lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen (aurrerantzean, LGTBI) eskubideak garatzea eta bermatzea du helburutzat, diskriminazio-egoerak desagerrarazi eta Espainian sexu-orientazioa, sexu-identitatea, genero-adierazpena, sexu-ezaugarriak eta familia-aniztasuna askatasun osoz bizi ahal izateko. Gainera, norberaren genero-determinazioa 16 urtetik aurrera arazorik gabe egitea ahalbidetzen du (informe mediku edo interbentziorik gabe sexu zein izen aldaketa). 14-15 urterekin aldiz, aldaketa gurasoen baimena dutenek egin ahal izango dute, eta 12-13 urtetik beherakoentzat epailearen baimena beharko da.

Eskola-ingurunean, adinez beherako edozeinek izango du bere identitatea zein den adierazi eta horrela tratatua izateko eskubidea; administrazio, entitate pribatu eta pertsonak izena aldatu duen adingabeari dagokion tratua ematera behartuta egongo direlarik. Horrela, legeak, bereizketa eza eta tratu-berdintasunaren printzipioa nagusitzen du. Gainera, indarkeria- eta bazterketa-egoerak prebenitzeko, hautemateko eta egoera horietan esku hartzeko, administrazio publikoek ikasleentzako trans eta jazarpen transfoboaren aurkako laguntza- eta laguntza-protokoloak prestatu beharko dituztela ere adierazten du, aniztasunarekiko errespetua sustatuz (22).

Bestalde, badaude Euskadin transexualen kolektiboaren alde lan egiten duten hainbat elkarte: Naizen, Ararteko, Gehitu, Chrysallis, Berdindu, Eraberean... beste askoren artean. Baita Espainia mailan lan egiten duen Federación estatal de Lesbianas, Gais, Trans, Bisexuales, Intersexuales y más (FELGTBI+) elkarte ere. Haiei esker, gizabanakoari laguntza, baliabide, babes, euskarri eta ikusgarritasuna emateaz gainera, familia eta haurren ingurunearen parte den orori, informazioa, hezkuntza eta beste hainbeste ere eskaintzen zaie (21).

Elkarte horietan hezkuntzarako baliabideak ugariak dira, izan ere, kolektibo honekiko transfobia, lehenago aipatu bezala, gehienetan eskola-ingurunean hasten da. Izatez, gero eta gehiago dira zuzenean haurrei gaiaren inguruan formazioa eta hezkuntza emateko sortzen ari diren hezkuntza programak:

2014.urtean Raquel Platerok argitaratutako “Trans*exualidades” lanean, esku-hartze didaktiko bat guztiz burutu ez zuen arren, haurrei hezkuntza egoki bat emateko beharrezko izango lirakeen egitura eta baliabideak argitaratu zituen, talde-teknika eta dinamika desberdinak proposatuz. Beti ere, lehen hezkuntzan zentratuta (23).

2015 urtean “Educación y transexualidad para la construcción de una sociedad inclusiva” izenez, gizarte inklusibo baten eraikuntzara bideratutako hezkuntza programa sortu zuen Juan José Leivak. Bertan, lehen hezkuntzako haurrak hartzen dira xede-taldetzat, eta formazioa zuzenean haiei eskaintzen zaie, ezagutzatik transfobia eta diskriminazioa frenatzeko (24).

2021. urtean ere hainbat hezkuntza programa sortu ziren. Alde batetik, Tara Sanchez eta Maria del Pilar Etopak, nerabezaroan transexuala izategatik jazarpenik ez jasateko, bigarren

hezkuntzan burutzeko ekite-plan bat proposatu zuten (25). Aldi berean, lehen hezkuntzan gaiarekiko sentsibilizazioa eta errespetua garatzeko zein transfobia adin goiztiarretik ekiditeko, Alba Martinek hezkuntza esku-hartzea argitaratu zuen ere (26).

Bigarren mailako prebentzioari dagokionez, detekzio goiztiarra daukagu. Izan ere, badaude genero disforia⁴ adin goiztiarrean identifikatzeko erramintak. Detekzioa, hainbat alderditatik izan ohi da; guraso, irakasle edota osasun-profesionalak batik-bat. Edozein kasutan, Isabel Miguel Mitre pediatriak adierazi bezala, badaude disforia egoera detektatzeko adierazleak (*ikus 1.eranskina*) (27).

Ez hori bakarrik, genero disforia daukan eta arazo psikologikoak izan ditzaken nerabeak, antsietate-, integrazio- edota bazterketa-arazoak dituen detektatzeko, badaude baliagarriak izan daitezkeen elkarrizketa erdi-egituratu batentzako ereduak (*ikus 2.eranskina*) (27).


Azkenik, hirugarren mailako prebentzioan, Euskadin adibidez, 2009. urtean, Euskadiko transexualen osasun-beharrak asetzeko asmoz, Osakidetzak erreferentziako GIU bat sortu zuen Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean. Estatuan transexualitate-egoeran dauden pertsonen osasun-estaldura integrala ematen aitzindaria dena. Honek, diziplina anitzeko egitura dauka, psikiatria, psikologia klinikoa, endokrinologia, kirurgia plastikoa eta ginekologia ospitale-zerbitzuak barne hartzen ditu, beste unitate batzuekin (urologia, pneumologia, etab.) abagunea duelarik. Bertan, EAEko hiru hiriburu-tako lehen mailako laguntza-zentroetatik bideratutako erabiltzaileei arreta, informazioa eta aholkuak ematen zaizkie (4,6,28).

Martxan jarri zenetik 2017ra arte, GIUK 237 pertsona artatu zituen guztira, horietatik 50 adingabeak zirelarik. Epe horretan, 4.870 kanpo-kontsulta zein 154 ebakuntza kirurgiko ere gauzatu ziren; genitalen berresleipena, alde biko mastektomia edota gehikuntzako mamoplastia, besteak beste (28).

Datu zehatzagoak ere badaude, lehenago aipatutako Pedro Gonzalez doktorearen ikerketak hurrengo datuak eskaintzen baitizkigu: 2009-2014 urte bitartean, 15 urte baino gutxiagoko mutil transexualen %7,3 eta neska transexualen %5,5 artatu ziren, baina 2015-2020 urte bitartean aldiz, ehuneko horiek %39,6 eta %36,2 izan ziren, hurrenez hurren (6). Beraz, urteak pasa ahala nerabeek beren generoaren inguruan hitz egiteko eta hortaz, osasun-

profesionalen batengana joateko erabakia hartzen dute. Izatez, azken urteotan GIUk artatutako nerabe kopurua handituz joan da (*ikus 1.grafikoa*) (6).

1. Grafikoa: Lehen aldiz artatutako pertsonen kopurua, urtearen eta adinaren arabera. **Iturria:** (6)



Bertan, beste hainbesteren artean, trantsizio hitzez ezagutzen den prozesu bat hasten da. Kontua da, hobesten den terapia, “pubertaroko blokeo” izenez ezagutzen dena, pubertarora hasi baino lehen hasia gomendatzen dela. Ondoren, lortu nahi diren ezaugarri-sexualen arabera terapia bat edo beste gomendatzen delarik, terapia hormonal gurutzatua kasu. Halere, tratamenduari hasiera emateko, osasun-mentalean aditua den profesional batek baiezkkoa eman behar du, trantsizio hau luzea eta psikologikoki nekagarria baita. Azken finean, trantsizioa transexualen ondoreza baretzeko egiten den arren, nahi ez diren bigarren mailako ondorioak izan ditzake, besteak beste frustrazioa eraginez (19).

1.2. ARRISKU-FAKTOREAK

Nerabe transgeneroen egoera zailtzen dituzten hainbat faktore daude, horien artean, haur eta nerabea zuzenean eragiten duena familia-ingurunea da. Izan ere, egoerara egokitzekeo familiak dauzkan moduek haurraren garapen psikomotorrean zein genero-identitatearekin

lotutako baliabideak eskuratzean zailtasunak eragin ditzakete. Familia-isiltasunak eta heteronormatibitatearen ezartzeak, nerabearen gizarteratzean eragin negatiboak baitauzka (10).

Gainera, nerabearen ingurunean, honen egoera onartua ez izateak eta ondorioz, egoera transfoboak bizitzeak nerabearen osasun egoeran eragin kaltegarriak ere izaten ditu maiz. Egoera muturrekoenetan, nerabeak bere buruarekin amaituz.

Beraz, transexualen kolektiboak daukan arrisku-faktore kaltegarriena ingurunearen onarpen falta edota haien egoerarekiko tolerantzia eza da.

1.3. XEDE-TALDEA

Transexualen kolektiboak jasaten duen diskriminazioaren aurrean, ez dago pertsona horiek gehiago integratu eta gizartea sensibilizatzeko nahikoa ekimen, eta gainera, ez da interes nahikoarekin esku hartzen ondorioetan. Halere, alor desberdin askotako profesionalen axolagabekeria jaiotzen da kontrolatu gabe dagoen transfobia hau, eskola-mailako hezkuntzan kasu (12,14).

Aipatu dugunez, Euskadiko transexualitatearen prebalentzia ezagututa, egoera horretan dauden 2 eta 16 urte bitarteko adingabeen prebalentzia are handiago dela ikusi da. Izatez, Euskadiko GIUan artatutako pazienteen ia %25a ere adingabea da (4,28). Gainera, bizitako transfobia eta jazarpenek eraginda, nerabeen ehuneko handi batek ideia eta jokabide autolesiboak dituela ere demostratu da, jarrera hauekin 10 urte dituztenetik has daitezkeelarik (9).

Bestalde, haurtzaroan zehar gure genitalen garapenarekin batera, garapen psikologikoa ere izaten dugu. Hori dela eta, 7 urte ditugunerako bakoitzaren sexu eta generoaren autopertzepzioak argiago ditugu, gerora ahoz adierazteko gai garelarik. Halere, nerabe transexualaren garapen psikologiko, psikomotor eta pertsonala baldintzatua ikus daiteke, bizitzan zehar jasan dezakeen transfobia dela eta (3).

10 urtetatik aurrera hasten da orokorrean garapen puberala, eta hortaz, nerabegaroko lehen urteak direla kontsideratzen da. Beraz, osasun-hezkuntza programa (OHeP) adin tarte horretako gaztetxoei bideratuko dela determinatu da, hezkuntzan oinarrituta, transexualitatean hezi eta ondorio negatiboak dakartzkion transfobiari amaiera emateko.

2. HELBURUA

2.1. HELBURU NAGUSIA

Transexualitatearen normalizazio goiztiarraren garapenerako, 11-12 urte bitarteko nerabeei bideratuko OHeP baten diseinua burutzea.

2.2. BIGARREN MAILAKO HELBURUAK

- OhePrako justifikazioa burutzea.
- OHePrako xede-taldea erabakitzea.
- OHePko helburu pedagogikoak zehaztea.
- OHePren plangintza egokia burutzea.
- OHePren kronograma planteatzea.
- OHePren ebaluazioa diseinatzea.

3. METODOLOGIA

Bilaketa bibliografikoak, 2022ko azaroaren 25 eta 2023ko martxoaren 12 bitartean burutu ziren. Horrela, OHePren sarrera, justifikazioa eta beharrezko edukiak osatu ziren.

Bilaketen oinarritzat, PubMed, MedEs, Cuiden, Dialnet eta Biblioteca Virtual de la Salud (BVS) izeneko datu-baseak erabili ziren. Horretarako, Descriptores en Ciencias de la Salud (DeCS), Medical Subject Headings (MeSH), hitz gako zein terminologia askea erabili ziren. Deskriptoreak eta hitz-gakoak, haien artean AND zein OR operadore bolearrekin konbinatu zirelarik.

Bilaketa egiteko moduari dagokionez, Pubmeden MeSH bidez burutu ziren. MedEs-en aldiz, hitz gakoak erabili ziren, baita Cuiden-en ere. Azkenik, PubMed-en Title/Abstract eta aldi berean, MedEs-en Título/Resumen atalean burutu ziren bilaketak.

Artikuluen aukeraketa errazteko, PubMed datu-basean bilaketa egiterakoan, artikuluko kopurua “10 years/10 años” iragazkiaren bidez murriztu zen. Honez gain, PubMed datu-basean bilaketa egiterakoan “human” zein “free full text” iragazkiak ere erabili ziren. Dialnet, MedEs eta Cuiden-en berriz, ez zen iragazkirik erabili aukerarik ez baitzegoen. Hortaz, hauen erabilera eza “--” bidez adierazi da taulan (*ikus 3.eranskina*).

Eskuratutako artikuluen aukeraketan, hizkuntza ere hartu zen kontuan. Izatez, gazteleraz edota ingelesez zeudenak aukeratu ziren soilik. Azkenik, artikuluen azken hautaketa burutzeko barneratze- eta kanporatze-irizpideak zehaztu ziren ere, barneratze-irizpideen artean adin-tartea eta kanporatze-irizpideen artean LGTBQA+ kolektiboa osotasunean lantzea zeudelarik, besteak-beste (*ikus 4.eranskina*). Bestalde, emaitza gehiegi lortutako bilaketetan, artikuluen laburpenak irakurri ziren gaiarekin zerikusia zutela bermatzeko.

Datu-baseetako bilaketez gainera, beste instituzio eta elkarteren web-orrialdeak ere erabili ziren, aurrez lortutako informazioa osatzeko. Horien artean, Espainiako Osasun Ministerioko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko eta Boletín Oficial del Estado-ko (BOE) web-orrialdeak erabili ziren, transexualen kolektiboarekin lan egiten duten Naizen eta Chrysallis elkarten webgunez gainera. Hori gutxi balitz, hainbat kasutan artikuluko zientifiko

zein informazio osagarria biltzeko ere Google Scholar edota Research Gate bilatzaileak ere erabili ziren.

Azkenik, OHeP batek daukan egitura osatu eta ikasketa-teknikak ezagutzeko Ana Maria Palmar Santosek idatzitako “Metodos Educativos en Salud” liburuaren 2.edizioa (29) eta M. Riquelme pediatriak egindako “Metodología de educación para la salud” (30) artikulua erabili ziren.

4. OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMAREN PLANGINTZA

4.1. XEDE-TALDEA

OHeP hau Zuhaizti Eskolan eramango da aurrera. Bertako ikasgelak erabiliko dira aurrerago aurkeztuko diren saioak emateko eta 11-12 urteko nerabeentzat, hau da, lehen hezkuntzako 6.mailakoentzat, egongo da bideratua.

Eskolan programa ezagutarazteko asmoz, zuzendariari korreo bidezko mezu bat bidaliko zaio (*ikus 5.eranskina*). Bertan, saioen asmoa eta egituraren inguruko informazioa emateaz gain, gaiari buruzko zertzelada txikiak aipatuko dira ere. Gainera, hezkuntza programa adin-txikikoei bideratuta dagoenez, gurasoentzako baimen-informatua ere txertatuko da (*ikus 6.eranskina*).

4.2 HELBURU PEDAGOGIKOAK

OHePri esker xede-taldeak lortu behar dituen helburu orokorra zein bigarren mailako beste hainbat helburu zehaztu dira:

4.1.1. Helburu orokorra

Xede-taldeak transexualitatearen normalizazioan trebetasuna eskuratzea, kalitatezko harreman osasuntsuak sustatuz.

4.1.2. Bigarren mailako helburuak

- Xede-taldea transexualitatearen definizioa emateko gai izatea lehen saio amaierarako.
- Genitalek generoa definitzen ez dutela ulertzea lehen saio amaierarako.
- Transexualitatearen kontzeptu basikoak ezagutzea lehen saio amaierarako.
- Transexualitate-egoera komunikatzearen zailtasuna ulertzea bigarren saio amaierarako.
- Transexualitatearen onarpen ezak sorrarazten duena ikustea bigarren saio amaierarako.
- Transfobia zerri deritzon jakitea hirugarren saio amaierarako.
- Jarrera transfoboak identifikatzeko gai izatea hirugarren saio amaierarako.
- Transfobiak dituen ondorio negatiboak ezagutzea hirugarren saio amaierarako.
- Diskriminatua den transexual baten sentimenduak identifikatzeko gaitasuna garatzea hirugarren saio amaierarako.
- Nerabeen arteko berdintasuna lantzea laugarren saio amaierarako.
- Transexualitatea normaltasunaren parte dela barneratzea laugarren saio amaierarako.
- Norbera den moduan maitatua eta onartua izan behar dela ulertaraztea bosgarren saiorako.

4.3. HEZKUNTZA EDUKIAK

Xede-taldeak ezarritako helburuak lor ditzan, hainbat azpigaietan sailkatu da edukia (*ikus 7.eranskina*).

4.4. METODOLOGIA PEDAGOGIKOA

Behin OHePren helburu pedagogikoak finkatuta eta jorratuko diren gaiak definituta, ikasleek transexualitateari buruzko informazio eta kontzeptuak ulertu eta egoki barneratu ditzaten, edukiak saio desberdinetan banatu dira (*ikus 8.eranskina*).

OHePren dinamika, xede-taldearen beharretara egokituko da, parte-hartzaileak modu holistiko batean baloraturaz. Kasu honetan, pubertaro hasieran dauden 11-12 urte bitarteko nerabeak (28, 29), hezkuntza esanguratsua izan dadin, ikasleek modu aktibo batean parte hartuko dutelarik.

Gainera, ikaskuntza kalitatezkoa izateko, irakaskuntza ordena jakin batean burutzea gomendatzen da: lehenik eta behin parte-hartzaileek beren errealitatea adierazi, ondoren lantzen ari diren gaien sakondu eta azkenik, egoerari aurre egiten dietelarik, beren errealitateari buruz erabakitzeke eta beharrezko baliabide zein trebetasunak garatuz (29).

Gauzak horrela, jorratuko den gaiaren eta lortu nahi den helburuaren arabera hezkuntza-teknika desberdinak erabiliko dira (*ikus 9.eranskina*).

Edukiak astean behin emango diren bost saioetan banatu dira, osasun-programaren iraupena bost astekoa izango delarik. Saioek, bi orduko iraupena izango dute, tartean 15 minutuko atsedenaldiarekin. Hauek, goizeko 10etatik eguerdiko 12ak arte izatea aurreikusi da.

Jarraian OHeP osatzen duten saioen aurkezpena egingo da, dagozkien izenburu, gaitegi, burutuko diren jarduerak eta ariketak, zein horietan beharko diren baliabideak adieraziz.

1. SAIOA: ZER DA TRANSEXUALITATEA?

Pertsona transexualen prebalentzia, urteak pasa ahala, geroz eta handiagoa da: zer esanik ez haur eta nerabe transexualena. Izatez, Europa mailan 100.000 biztanleko 4,6 pertsona dira transexualak eta aldi berean Euskadin, transexualitatearen prebalentzia, 10.000 biztanleko 2.4 kasukoa da (4,6). Gainera, denborak aurrera egin ahala, gai honekiko tolerantzia handiagoa denez, aniztasunaren inguruan aniztasunez hitz egitea errazago bihurtzen ari da, trans identitatea baieztatzen duten adingabeak gero eta gehiago direlarik (9).

Honen harira, prepuberalak transexualitatean modu aktibo batean formatzea garrantzitsua da, xede-taldeko kideek askatasunez haien ezagutza zein zalantzak adieraz ditzaten. Hori dela eta, saioan zehar, parte-hartzaileek transexualitatearen inguruan dakitena besteekin partekatu, ideiak komunean jarri eta transexualitatean trebatuko dira. Gainera, hainbat dinamika desberdinen bitartez, definizioa osatu eta ezagutzeaz gain, gaiarekin zerikusia daukaten hainbat kontzeptu ere landuko dira.

Estrategia-metodologikoa:

2.Taula: Lehen saioko antolaketa. Iturria: propioa.

TEKNIKA	TEKNIKA ETA GARAPENA	MIN.
<u>Elkartze-teknika</u>	<u>Aurkezpena:</u> Lehen saioaren hasieran harrera egingo zaio taldeari, osasun agenteek haien burua aurkeztu eta landuko den gaia azalduz. Gainera, saioko zereginak azalduko dira ere.	10'
<u>Ikerketa-teknika</u> (“Brainstorming”)	<u>Ideien zaparrada:</u> Ikasleak taldeetan jarri eta arbelean “transexualitatea” hitza idatziko du osasun-agenteak. Jarraian, taldeetan hitz horrekin burura datozkien ideiak haien artean adierazi, eztabaidatu eta orri batean idatziko dituzte. Ondoren, talde txikietan hitz egindakoa talde handian partekatuz eta osasun-agenteek arbelean idatziz.	30'
<u>Analisi-teknika</u> (Bideo bidez)	<u>“Munduak guztiontzat beharko luke”:</u> Bizipoza elkarteak Naizen elkartearentzat egindako bideo didaktikoa ikusi eta alua duten mutilak zein zakila duten neskek existitzen direla ikusiko dute.	5'

BIDEOA: [Munduak guztiontzat beharko luke](#) (32).

atsedenaldia (15')

<u>Analisi-teknika</u> (Bideoaren analisia)	<u>Ideien berrantolaketa:</u> Saioaren hasieran jarritako talde txikietan elkartuko dira berriro, hasieran idatzitako ideiak oinarritzat hartu eta bideoa ikusi ondoren ulertutakoa elkartu dezaten, transexualitatearen inguruko ideiak berrantolatuko dituztelarik.	10'
<u>Azalpen-teknika</u> (Ikasgai parte-hartzea)	<u>Definizioaren osatzea:</u> berrantolatutako ideiak talde handiarekin partekatu eta osasun-agenteen laguntzaz, elkarlanean, transexualitatearen definizio bat eraikiko da.	10'
<u>Azalpen-teknika</u> (Ariketa-fitxa bidez)	<u>Kontzeptuak ezagutzen:</u> Ikasle bakoitzari letra-zopa eta definizio batzuk dituen orri bat banatuko zaio. Lehenengo letra-zopan hurrengo sei kontzeptuak aurkitu beharko dituzte: transgenero, transexual, zisgenero, aniztasun, genero, genero-aniztasun. Azkenik, lortutako kontzeptuak definizioekin lotu beharko dituzte (<i>10.eranskina</i>).	20'
<u>Ebaluazio-teknika:</u>	<u>Kahoot:</u> Lehenengo saioan zehar landutakoaren inguruko galderak egingo dira Kahoot aplikazioaren bitartez, landutakoa ulertu eta barneratu den ebaluatzeko (<i>11.eranskina</i>).	10'
<u>Agurra</u>	Saioa amaitutzat jo baino lehen, osasun-agenteei parte-hartzaileei zalantzarik edo esan nahiko luketen zerbait duten galdetuko dute, baita hauei erantzun ere. Jarraian, adituek taldea agurtu eta datorren saioa noiz izango den adieraziko die.	10'

2. SAIOA: TRANSEXUALITATEAREN ONARPENA.

Nerabea haurra denetik, familia eta gizartearengatik influentziatua dagoen genero jakin batean kokatzen da, ikuspuntu heteronormatiboa oinarritzat hartuaz. Hori dela eta, jaiotako sexuarekin bat ez datozen nerabeek, bere egoera adierazi eta nola sentitzen diren adierazteko zailtasunak izan ohi dituzte. Izan ere, onartuak ez izateko beldurrak mugituta, sekretuan gorde duten sentimendu hori kontatzea kosta egiten zaie, gerta daitekeena imajinatzeagatik: familiaren eta adinekoen gaitzespena, ingurunearen jazarpenera, abusuak... besteak beste (10,11,12,13).

Horregatik, ikasleek haien barnean gordeta duten zerbait kontatzea pentsatzeak edo kontatzeak berak sorrarazten dituen zailtasunak ulertuko dituzte saio honi esker. Baita, kontatzek izan ditzakeen eraginak ezagutu ere.

Estrategia-metodologikoa:

3.Taula: Bigarren saioko antolaketa. Iturria: propioa.

TEKNIKA	TEKNIKA ETA GARAPENA	MIN.
<u>Elkartze-teknika</u>	<u>Aurkezpena:</u> saioaren hasieran harrera egingo zaio taldeari, landuko den gaia eta saioaren nondik-norakoak azalduz.	5'
<u>Analisi-teknika</u> (Ipuin bidez)	<u>Sekretuen hamaika zapoak:</u> Oihane Fernandez idazleak 2018an argitaratutako liburua (33) irakurriko dio xedetaldeari ipuin kontalariak. Izan ere, ipuinean mutila edo neska izatearen artean desberdintasunik dagoen edota gure generoa zerk baldintzatzen duen bezalako galderei erantzuteko, protagonistak kutxa batean giltzapeturik kontatzera ausartzen ez den sekretu bat dauka: transexuala da. Horrela, sekretuak kontatzeko zailtasuna landu eta bere egoera adierazten duen transexual baten azalean jarriko dira ikasleak. Norbere burua onartu behar dela irakatsiz eta adiskidetasuna, laguntasuna zein lankidetzatza landuz.	45'
atsedenaldia (15')		
<u>Ikerketa-teknika</u> (Jolas bidez)	<u>Termometro jolasa:</u> Gazteak ilara batean jarriko dira ikasgelan. Ilararen eskuineko aldean "BAI" kartela egongo da eta ezkerreko aldean aldiz, "EZ" kartela. Erizainak hainbat galdera egingo ditu altuan (<i>12.eranskina</i>) eta	20'

ikasleak, hauek erantzuteko asmoz, ezer esan gabe, eskuinerantz edo ezkererantz mugituko dira. Erantzunaren intentsitatea ikaslearen mugimenduarekin baloratuko da, hau da, gero eta gertuago egon karteletik, orduan eta adosago egongo da kartelean adierazitakoarekin, galderaren adostasuna zein desadostasuna adieraziz. Gainera, erantzunei mamia ateratzeko, erizainak ikasleren bati bere kokalekuaren zergatia galdetuko dio. Beti ere, nerabearentzat galderak talde handiaren aurrean erantzun ahal izateko pertsonalegiak izan gabe.

<p><u>Ikerketa-teknika</u> (Phillips 66 teknika)</p>	<p><u>Sekretuak kontatzeak eragiten duen zailtasunaren inguruko hausnarketa:</u> Xede-taldea seiko taldeetan banatuko da, sei minututan termometroaren jolas bitartez sentitu dutenaz hitz egin eta elkar banatzeko. Ondoren, talde txikietan adierazitako sentimenduak talde handian partekatuko dira, errepikatu diren sentimenduen analisia, erizainaren laguntzaz, talde handian eginez.</p>	<p>15'</p>
<p><u>Ebaluazio-teknika:</u></p>	<p><u>Kahoot:</u> Bigarren saioan zehar landutakoaren inguruko galderak egingo, landutakoa ulertu den ebaluatzeko (<i>13.eranskina</i>).</p>	<p>10'</p>
<p><u>Agurra</u></p>	<p>Saioa amaitutzat jo baino lehen, osasun-agenteeek parte-hartzaileei zalantzarik edo esan nahiko luketen zerbait duten galdetuko dute, baita hauei erantzun ere. Jarraian, adituek taldea agurtu eta datorren saioa noiz izango den adieraziko die.</p>	<p>10'</p>

3. SAIOA: TRANSFOBIA ETA HAREN ONDORIOAK.

Behin ikasleek transexualitatea zer den eta kontatzeak zein zailtasun eragiten dituen argi dutela, transexualei hainbeste sufriarazten dizkieten jarrerak zeintzuk diren ezagutu eta hauek identifikatzen irakatsiko zaie. Azken finean, transfobia hitzez ezagutzen ditugun jazarpeneko jarrerak baitira kolektiboko kideei kalte gehien eragiten dizkietenak. Izan ere, nerabe transexualaren garapen psikologiko, psikomotor eta pertsonala baldintzatua ikus daiteke jarrera hauengatik, baita ideia eta jokabide autolesiboak izan ere (3,9).

Hori dela eta, transfobia zer den eta zein jarreretan identifikatu daitekeen ezagutaraziko zaie ikasleei saio honetan zehar.

Estrategia metodologikoa:

4.Taula: Hirugarren saioko antolaketa. Iturria: propioa.

TEKNIKA	TEKNIKA ETA GARAPENA	MIN.
<u>Elkartze-teknika</u>	<u>Aurkezpena:</u> saioaren hasieran harrera egingo zaio taldeari, landuko den gaia eta saioaren nondik-norakoak azalduz.	5'
<u>Analisi-teknika</u> (Metafora bidez)	<u>Imajinatu...:</u> Ikasleak banaka eseriko dira ikasgelan eta begiak ixteko eskatuko zaie. Jarraian, haur psikologoak itxurazko egoera batean jarriko ditu (<i>14.eranskina</i>). Begi itxiekin entzundako metafora amaitzean ikasleei mahai gainean duten orrian, istorioan zehar sentitu dutena laburbiltzeko eskatuko zaie; sentimendu zerrenda bat egiteko. Ondoren, sentimendu horiek talde handian konpartitu eta arbelean idatziko dira. Gezurrezko istorio honekin sentitutako sentimenduak, transexual batek bere egunerokotasunean senti ditzakeenak direla ulertaraziz eta enpatia bitartez ulertuaz.	30'
<u>Azalpen-teknika</u> (Azalpena diskurtsoarekin)	Erizainak taldeari transfobiaren definizioa azaldu eta transexualak gehien mintzen dituen jarrera transfoboak zeintzuk diren azalduko die. Horretarako, arbelean proiektatuko den PowerPoint batez baliatuko da (<i>15.eranskina</i>).	10'
atsedenaldia (15')		
<u>Azalpen-teknika</u>	<u>Kolektiboko kidea:</u> Naizen elkarteko kide den nerabe	45'

(Bizipen erreala)	transexuala ikasgelara joango da. Bertan, ikasleak borobilean eseriko dira, baita Naizen elkarteko kidea ere. Horrela, transexuala den nerabeak bere bizipen pertsonala zein jasan behar izan dituen egoerak eta aurre egin behar izan dien momentu gogorak lehen pertsonan kontatuko dizkio xede-taldeari. Ondoren, ikasleek zalantza edo galderarik izan ezkeru, berari zuzenean galdetzeko aukera izango dutelarik.	
<u>Ebaluazio-teknika</u>	<u>Kahoot</u> : Hirugarren saioan zehar landutakoaren inguruko galderak egingo, landutakoa ulertu den ebaluatzeko (16.eranskina).	10'
<u>Agurra</u>	Saioa amaitutzat jo baino lehen, osasun-agenteek parte-hartzaileei zalantzarik edo esan nahiko luketen zerbait duten galdetuko dute, baita hauei erantzun ere. Jarraian, adituek taldea agurtu eta datorren saioa noiz izango den adieraziko die.	5'

4. SAIOA: TRANSEXUALITATEAREN NORMALIZAZIOA.

Transexualitatea despatologizatzeko bidean dagoen egoera bat da. Izatez, transexualitatearen normalizazioak, kolektiboko kideen ongizatea dakar. Onarpen-maila handitzen doan heinean, haientzako arretarako baliabideak ere hobetzen eta ugaritzen baitoaz. Honi esker, lehenago landutako jazarpen eta gutxiespeneko jarrerak ekiditea lortzen dugu, gizartearen parte den eta transexualitate egoeran dauden pertsonen bizi kalitatea hobetuz. Baita, banakoen arteko desberdintasunik gutxituz ere (6).

Horregatik, transexualitatea integratzen eta egunerokotasuneko egoeretan normaltasunez jarduten irakatsiko zaio xede-taldeari saio honetan.

Estrategia metodologikoa:

5.Taula: Laugarren saioko antolaketa. Iturria: propioa.

TEKNIKA	TEKNIKA ETA GARAPENA	MIN.
<u>Elkartze-teknika</u>	<u>Aurkezpena:</u> saioaren hasieran harrera egingo zaio taldeari, landuko den gaia eta saioaren nondik-norakoak azalduz.	5'
<u>Azalpen-teknika</u> (Antzezlan bidez)	<u>Antzezlan:</u> Azpeitiko XXXVI. Euskal Antzerki Topaketetako Ikusleen Saria jaso zuen “Lur” antzezlan bideoan grabatuta ikusiko dute ikasleek. Horrela, istorio baten bitartez, nerabe batek bere generoa zein den adierazi eta familiak (kasu honetan aitak) onartu eta bere egunerokotasunean normalizatzeko bizitzen dituen prozesuak ikusiko dituzte.	60'
atsedenaldia (15')		
<u>Gaitasunen garapenerako teknika</u>	<u>Role playing:</u> Ikasleak lau taldeetan banatu eta hurrengoaren inguruko antzezlan prestatzeko eskatuko zaie: lagun batek transexuala dela esan dizue, nola erreakzionatuko zenukete?	25'
<u>Ebaluazio-teknika</u>	<u>Kahoot:</u> Laugarren saioan zehar landutakoaren inguruko galderak egingo, landutakoa ulertu den ebaluatzeko (17.eranskina).	10'
<u>Agurra</u>	Saioa amaitutzat jo baino lehen, osasun-agenteek parte-hartzaileei zalantzarik edo esan nahiko luketen zerbait	5'

duten galdetuko dute, baita hauei erantzun ere. Jarraian, adituek taldea agurtu eta datorren saioa noiz izango den adieraziko die.

5. SAIOA: NORBERAREKIKO MAITASUNA.

Gaur egungo gizarte heteronormatiboak normaltasuna zer den barneratuarazi digu, matrize bitarra indartuta egoteaz gainera, jarrera, sentimendu eta gustuak inposatzen. Ondorioz, norbanakoa ezarrirako horren estandarretatik at baldin badago, egoera zein sentimenduk adierazteko zailtasunak izan ditzake. Izatez, orokorrean normaltzat jotzen ez den beste edozein genero-identitatek marjinatua zein baztertua izatea eragiten ditu (10,11,14).

Honen ondorio nagusia, bakoitzak bere burua onartu eta maitatzeko zailtasunak izatea denez, saio honetan zehar bakoitza den bezalako maitatzea, errespetatzea eta onartzea landuko da.

Estrategia metodologikoa:

6.Taula: Bosgarren saioko antolaketa. Iturria: propioa.

TEKNIKA	TEKNIKA ETA GARAPENA	MIN.
<u>Elkartze-teknika</u>	<u>Aurkezpena:</u> saioaren hasieran harrera egingo zaio taldeari, landuko den gaia eta saioaren nondik-norakoak azalduz.	5'
<u>Analisi-teknika</u> (Bideoklip bidez)	<u>Gure Kaiola:</u> Glaukoma taldearen Gure Kaiola abestiaren bideoklipa ikusiko du xede-taldeak. Jarraian, abestiaren zati baten letra idatzita daukan fitxa emango zaiolarik ikasle bakoitzari (<i>18.eranskina</i>). BIDEOA: Gure Kaiola (34).	10'
<u>Ikerketa-teknika</u> (Philips 66 teknika)	<u>Gure Kaiola 2:</u> Xede-taldea 6 kideko talde txikietan banatuko da. 6 minutuz bideoklipean ikusi dutenaren inguruan eztabaidatuko dute. Jarraian, emandako fitxako letra analizatuko dute beste 6 minutuz. Azkenik, talde bakoitzeko kide batek (bozeramaileak), talde txikietan hitz egin eta ondorioztatutakoa elkarbanatuko du talde handiarekin.	30'
atsedenaldia (15')		
<u>Analisi-teknika</u> (Hausnarketa bidez)	<u>Nor naiz ni?</u> Ikasleak banaka eseri eta fitxa bat entregatuko zaie. Bertan, haien izena zein den, nola deitzea gustatzen zaien eta haien burua nola ikusten duten adieraziko dute;	25'

idatziz zein marrazkia eginez (19.eranskina).

<u>Azalpen-teknika</u> (Bizipen errealak)	<u>Horrelakoa naiz:</u> Xede-taldeak, banaka egindako haien buruaren fitxa talde aurrean erakutsi eta beraien burua aurkeztuko dute. Beti ere, ikasleak gustura eta egiteko gogoz sentitzen baldin badira.	20'
<u>Ebaluazio-teknika</u>	<u>Galdetegia:</u> OHePren hasieran ezarritako helburu espezifikoak bete diren baloratzeko, azken galdetegia pasako zaio ikasle bakoitzari (20.eranskina).	5'
<u>Agurra</u>	Saioa amaitutzat jo baino lehen, osasun-agenteei parte-hartzaileei zalantzarik edo esan nahiko luketen zerbait duten galdetuko dute, baita hauei erantzun ere. Jarraian, adituek taldea agurtuko dute.	10'

4.5 BEHARREZKO BALIABIDEAK

Saio bakoitzean hurrengo taulan adierazitako baliabideak erabiliko dira (*ikus 7.taula*).

7.taula: Saio bakoitzean beharko diren baliabideak. Iturria: propioa.

SAIOAK	BALIABIDE MATERIALAK	GIZA BALIABIDEAK	ANTOLAKUNTZA BALIABIDEAK
1.SAIOA	Ikasgelako arbela, arbelerako errotulagailua, folioak, proiektorea, ordenagailua, Naizen elkarteko bideoa, letrazopa eta definizioen fitxa.	Gaian espezializatutako erizain eta psikologoa.	Zuhaizti Eskola.
2.SAIOA	Ikasgelako arbela, proiektorea, ordenagailua, “Sekretuen Hamaika zaporeak” liburua.	Gaian espezializatutako erizaina eta ipuin kontalaria.	Zuhaizti Eskola.
3.SAIOA	Folioak, ikasgelako arbela, proiektorea eta ordenagailua.	Gaian espezializatutako erizaina eta Naizen elkarteko kide den nerabe transexuala.	Zuhaizti Eskola.
4.SAIOA	Ikasgelako arbela, proiektorea eta ordenagailua.	Gaian espezializatutako erizain eta psikologoa.	Zuhaizti Eskola.
5.SAIOA	Proiektorea, arbela, ordenagailua, Gure Kaiola abestiaren letra, “Nor naiz ni?” fitxa eta azken galdetegiaren fitxa.	Gaian espezializatutako erizain eta psikologoa.	Zuhaizti Eskola.

5. EBALUAZIOA

Ebaluazioaren bitartez, irakaskuntza-prozesua zein ikaskuntza-prozesuaren kalitatea baloratu daitezke. OHePren ebaluazio egokia egiteko, proiektuaren emaitzen, prozeduren eta baliabideen ebaluazioak burutu behar dira.

5.1. EMAITZEN EBALUAZIOA

Emaitzen ebaluazioa burutzeko, OHeP martxan jarri baino lehen zehaztutako helburua pedagogikoak bete diren aztertu behar da. Horretarako, azken saioaren amaieran, galdetegi bat pasako zaio xede-taldeari (*ikus 20.eranskina*). Gainera, saio bakoitzaren amaieran ere, helburu espezifikoaren ebaluazioa egiteko asmoz, Kahoot aplikazio bidez egindako galdetegiak (*ikus 11, 13, 16, 17 eranskinak*) zein, burututako ariketa fitxak (*ikus 10, 12, 18, 19.eranskinak*) eta ahoz gora egindako hausnarketak ere erabiliko dira.

5.2. PROZESUAREN PROGRAMAZIOAREN EBALUAZIOA

Orain, proiektuaren ekintzak zein hauen programazioaren egokitasuna baloratuko dira; asistentzia, parte-hartzea, aurreikusiriko ekintzen gauzatze maila, helburuak eta edukiak diana taldera egokitzea... bezalako ezaugarriak kontuan hartuz. Hau, OHePren amaieran, osasun agenteek beteko duten galdetegi baten bidez baloratuko da (*ikus 21.eranskina*). Baita xede-taldeak beteko duen galdetegi motz bati esker ere (*ikus 22.eranskina*).

5.3. EGITURA ETA BALIABIDEEN EBALUAZIOA

Azkenik, OHePn zehar erabilitako egituraren, ikasgelaren, saioen iraupenaren, material didaktikoaren, osasun agenteen eta ordutegiaren inguruan galdetuko zaie xede-taldeko kide zein osasun-agenteei, erabilitako egitura eta baliabideak ebaluatzeko asmoz (*ikus 21 eta 22.eranskinak*).

6. EKARPEN PERTSONALA

Transexualitate hitza egungo gizartean gero eta gehiago entzuten den arren, oraindik zeregin anitz dago egiteko; adin goiztiarretik lehenengo mailako prebentzioarekin hasia, besteak beste. Hezkuntzak, gaiaren inguruko ezjakintasunetik abiatuta, ezagutzak garatzera baitakar.

Gizarte heteronormatiboak, genitaletan oinarrituta, bakoitzari esleitu dion generoarekin bat ez egotea eta identifikatzea, ez da lan erraza. Zer esanik ez, autopertzepzio lana egindakoan, sentitutakoa komunikatzea. Hori gutxi balitz, transexualitate egoera adierazi ondoren, ustez gizartean “normaltasunetik” at dagoenarekiko dauden jarrerak jasatea ere, ez da inorentzako atsegina. Jazarpen, iseka, mespretxu eta bestelako jarrera desatseginak ez bailituzke inork bizi beharko. Hare gutxiago, haur edota nerabeek.

Horregatik, adin goiztiarretik transexualitate kontzeptuaren arrotasuna alde batera uztea eta aldi berean haren esanahia zein den ezagutu, ulertu eta barneratzea garrantzitsua dela diot. Ez hori bakarrik, transfobia zer den, zein ekintzetan ematen den eta jarrera hauek zer probokatzen dutenarekiko kontzientzia garatzea ere ezinbestekoa dela iruditzen zait. Horrela, bestelako egoera bat ulertu eta normaltasunez maneiatzen ikasi baitaiteke. Azken finean, Francis Baconek esan zuen bezala, *ezagutza boterea da*.

Zorionez, egun transexualitatea ezagutaraztera ematen ari den zerbait da. Izatez, kolektiboaren eskubideen alde egiten duen legea martxan dago iada, transexualitatea normalizatu eta haiekiko tolerantzia aldarrikatzeko asmoz. Gizakia den orok baitu errespetatua izateko eskubidea.

Esandakoak esanda, datozen generazioak aniztasunean hezi beharko lirateke, aniztasunak aberastasuna besterik ekartzen ez baitu. Hori dela eta, nerabezeroan transexualitatea lantzeko hezkuntza programak urriak diren arren, lanean jarraitu behar dugu, tolerantzia, errespetu eta batez ere, berdintasunean oinarritutako gizarte bat eraikitzeko asmoz.

7. BIBLIOGRAFIA

1. Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad. Glosario de términos sobre diversidad afectivo sexual. 2018 [kotsulta, 2022/11/25a]. Erabilgarri: <https://www.sanidad.gob.es/ciudadanos/enfLesiones/enfTransmisibles/sida/docs/glosarioDiversidad110418.pdf>
2. Naizen [Internet]. Gipuzkoa; 2019 [kotsulta 2022/11/25a]. Erabilgarri: <https://naizen.eus/guia-rapida/lo-que-ienes-que-saber/identidad-sexual-y-transexualidad/>
3. Camino Jusué Rípodas. Identidad de sexo y género en niñas y niños de 3 a 11 años [tesia]. Donostia/San Sebastian: Euskal Herriko Unibertsitatea; 2015 [kotsulta, 2023/01/25a]. Erabilgarri: <http://hdl.handle.net/10810/21725>
4. Eusko Jaurlaritz. Guía de atención integral a las personas en situación de transexualidad [Internet]. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2016 [kotsulta, 2022/12/13a]. Erabilgarri: <http://dx.doi.org/10.13140/RG.2.1.5182.1686/1>
5. Chrysallis [Internet]. Euskal Herria; 2013 [kotsulta, 2022/11/30a]. Erabilgarri: https://chrysallis.org/chrysallis_asociacion_familias_menores_trans/
6. Pedro González Fernández. Evolución demográfica y morbilidad en la población transexual de Euskadi (2009-2020) [tesia]. Donostia/San Sebastian: Euskal Herriko Unibertsitatea; 2021 [kotsulta, 2023/01/25a]. Erabilgarri: <http://hdl.handle.net/10810/56365>
7. Álvaro Carvajal Villaplan. Transexualidad y transfobia en el sistema educativo. UCR [Internet]. 2018 [kotsulta, 2023/03/08a]. 8(1):2215-3934. Erabilgarri: <http://dx.doi.org/10.15517/h.v8i1.31467>
8. Guzmán-Parra J, Sánchez-Álvarez N, de Diego-Otero Y *et al.* Sociodemographic Characteristics and Psychological Adjustment Among Transsexuals in Spain. *Arch Sex Behav* [Internet]. 2016 [kotsulta, 2022/11/26a]; 45:587–596. Erabilgarri: <https://doi.org/10.1007/s10508-015-0557-6>
9. Modrego I, Gómez M *et al.* Antecedentes de comportamientos autolesivos y autolíticos en población adolescente y adulta joven transexual, atendida en una unidad especializada en identidad de género en España. *Esleiver* [Internet]. 2021 [kotsulta, 2023/02/09a]; 68(5):338-345. Erabilgarri: [10.1016/j.endinu.2020.04.006](https://doi.org/10.1016/j.endinu.2020.04.006)

10. Silva FV, Jales RD, Pereira IL, Almeida LR, Nogueira JA, Almeida SA. Transgeneridad infantil desde la perspectiva de los profesores de primaria. Rev. Latino-Am. Enfermagem [Internet]. 2021 [konsulta, 2022/12/20a]; 29:3459. Erabilgarri: <https://doi.org/10.1590/1518-8345.3792.3459>
11. Day JK, Perez-Brumer A & Russell ST. Safe Schools? Transgender Youth's School Experiences and Perceptions of School Climate. J Youth Adolescence [Internet]. 2018 [konsulta, 2023/02/20a]; 47:1731–1742. Erabilgarri: <https://doi.org/10.1007/s10964-018-0866-x>
12. Laguna V. Intervención sobre las dificultades en el proceso de socialización y desarrollo personal [gradu amaierako lana Interneten]. Jaén: Universidad de Jaén, Facultad de trabajo social; 2015 [konsulta, 2023/02/12a]. Eskuragarri: <https://tauja.ujaen.es/bitstream/10953.1/1696/1/TFGLaguna%20Trenado%2c%20Vana%20esa.pdf>
13. Hurtado-Murillo F. Disforia de género en infancia y adolescencia: Guía de práctica clínica. Rev Esp Endocrinol Pediatr [Internet]. 2015 [konsulta, 2023/01/20a]; 6(1):45-52. Erabilgarri: <https://www.adolescenciasema.org/ficheros/PEDIATRIA%20INTEGRAL/GPC%20Disforia%20de%20genero.pdf>
14. Vegara A. Transexualidad en la infancia [gradu amaierako lana Interneten]. Jaén: Universidad de Jaen, Facultad de Ciencias Sociales y Jurídicas; 2020 [konsulta, 2023/02/12a]. Eskuragarri: <https://tauja.ujaen.es/bitstream/10953.1/12489/1/TFG%20Vergara%20Carmona%2c%20Alba.pdf>
15. Feijóo S, Rodríguez-Fernández R. A Meta-Analytical Review of Gender-Based School Bullying in Spain. International Journal of Environmental Research and Public Health [Internet]. 2021 [konsulta, 2023/02/12a]; 18(23):12687. Erabilgarri: <https://doi.org/10.3390/ijerph182312687>
16. Hurtado F, Gomez M, Donat F. Transexualismo y salud mental. RPPC [Internet]. 2007 [konsulta, 2022/11/26a]; 12(1):43-57. Erabilgarri: <http://espacio.uned.es/fez/eserv/bibliuned:Psicopat-2007-8365E6D2-2D9E-CEF5-FDA9-849AF61B8B1D/Documento.pdf>
17. Paz-Otero M, Becerra-Fernández A, Pérez-López G, et al. A 2020 Review of Mental Health Comorbidity in Gender Dysphoric and Gender Non-Conforming People. J

- Psychiatry Treat Res [Internet]. 2021 [kotsulta, 2023/02/12a]; 3(1):44-55.
Erabilgarri: doi: 10.36959/784/425
18. Miner K. Moio: gordetzea ezinezkoa zen. 1.edizioa. Donostia: Elkar; 2019.
19. Mora C, Guerrero J, Itza N, Ortiz A, González I. Cambios físicos y analíticos en menores transexuales bajo tratamiento médico. Rev Esp Endocrinol Pediatr [Internet]. 2017 [kotsulta, 2023/02/12a]; 8(3):29-39. Erabilgarri: <https://www.endocrinologiapediatrica.org/revistas/P1-E24/P1-E24-S1220-A437.pdf>
20. 14/2012 Legea, 2012ko urriaren 6koa, no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas transexuales. Boletín Oficial del Estado [Internet], 172 zbk (2012ko uztailearen 19a) [kotsulta, 2023/01/20a]. Erabilgarri: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2012-9664>
21. FELGTBI+. Guía para la atención de las personas trans en el ámbito sociosanitario [Internet]. Madrid: FELGTB; 2021 [kotsulta, 2023/01/10a]. Erabilgarri: https://felgtb.org/wp-content/uploads/2021/11/guia_at_personastrans_FELGTB21.pdf
22. Platero Mendez R. TRANS* exualidades: Acompañamiento, factores de salud y recursos educativos [Internet]. Barcelona: Edicions Ballaterra; 2014 [kotsulta, 2023/01/10a]. Erabilgarri: <https://clea.edu.mx/biblioteca/files/original/2ff85f318eeee77a8cb9f93ec112b8e5.pdf>
23. 4/2023 Legea, 2023ko otsailaren 28koa, para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI. Boletín Oficial del Estado [Internet], 51 zbk (2023ko martxoaren 1a) [kotsulta, 2023/03/12a]. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/l/2023/02/28/4>
24. Leiva Olivencia J. Educación y transexualidad para la construcción de una sociedad inclusiva. In: Leiva JJ, Martín VM, Vila ES, Sierra JE. Género, Educación y Convivencia. Madrid: Dykinson; 2015. 89-10.
25. Sanchez T, Etopa MP. Plan de acción tutorial para prevenir el acoso escolar transfóbico en la adolescencia. INFAD [Internet]. 2021 [kotsulta, 2023/03/12a]; 1(2):145-154. Erabilgarri: <https://revista.infad.eu/index.php/IJODAEP/article/view/2167/1854>
26. Martín A. Propuesta de intervención educativa para la sensibilización de la transexualidad en las aulas de Educación Primaria [gradu amaierako lana interneten]. Zaragoza: Universidad de Zaragoza, Departamento de Psicología y Sociología; 2021 [kotsulta, 2023/02/10a]. Erabilgarri: <https://zaguan.unizar.es/record/106418>

27. Miguel M. Transexualidad desde la atención pediátrica. Canarias Pediátrica [Internet]. 2019 [konsulta, 2023/02/10a]; 43(2);113-117. Erabilgarri: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/7188749.pdf>
28. Responsables de la Unidad de Identidad de Género del Hospital Universitario Cruces comparecen en el Parlamento Vasco. Euskal Gobernua [Internet]. 2018ko apirilaren 25a [konsulta, 2023/03/12a]; Gasteiz. Erabilgarri: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/responsables-de-la-unidad-de-identidad-de-genero-del-hospital-universitario-cruces-comparecen-en-el-parlamento-vasco/>
29. Temborry MC. Desarrollo puberal normal: Pubertad precoz. Rev Pediatr Aten Primaria [Internet]. 2009 [konsulta, 2022/12/12a]; 11;127-142. Erabilgarri: <https://scielo.isciii.es/pdf/pap/v11s16/original1.pdf>
30. Palmar Santos AM. Metodos educativos en salud. 2ª ed. Elsevier; 2023.
31. Riquelme Perez M. Metodología de la educación para la salud. Rev Pediatr Aten Primaria [Internet]. 2012 [konsulta, 2023/02/20a]; 14(22):77-82. Eskuragarri: <https://dx.doi.org/10.4321/S1139-76322012000200011>
32. Bizipoza. Munduak guztiontzat beharko luke [bideoa]. Youtube: 2020 [konsulta, 2023/02/25a]. Eskuragarri: <https://youtu.be/FH7syuHheds>
33. Fernandez O. Sekretuen hamaika zaporeak. 1ª ed. Ibaizabal. Bilbo; 2018.
34. Glaukoma. Gure kaiola [bideoa]. Youtube: 2017 [konsulta, 2023/02/25a]. Eskuragarri: <https://youtu.be/Rq7QiETb37k>
35. Chrysallis [Internet]. Barcelona; 2021 [konsulta, 2023/03/12a]. Recursos: Guía para docentes; [37]. Erabilgarri: <https://chrysallis.org/wp-content/uploads/2021/05/GUIA-PARA-DOCENTES.-Educacion-en-Diversidad-e-Igualdad.pdf>

8. ERANSKINAK

1. Eranskina: Genero disforiaren detekzio goiztiarrerako adierazleak.

GENERO ADIERAZLEK

Esleitutako sexuarekin bat ez datozen nortasun-baieztapenak

Beste generoari dagozkion arropak jазtea

Beste generoari dagozkion jolasetan jolastea

Beste generoari dagozkion rolak bere gain hartzea

Genero bereko edo aurkako berdinen taldearekiko harremana

Beste generoarekin erlazionatzen diren hitz egiteko zein jokatzeko moduak izatea

Anatomia sexualarekin disforia izatea

Joko zakarretan parte hartzea

Iturria: (27).

2. Eranskina: Arazo psikosozialen detekziorako erdi-egituratutako elkarrizketa eredua.

ERDI-EGITURATUTAKO ELKARRIZKETA EREDUA

Zein da zure jostailu gogokoena?

Zein da gehien gustatzen zaizun jokoak?

Ispilura begiratzen zarenean, ba al da gustuko ez duzun zerbait zure buruaz? (iradoki: zure aurpegiaren, oinena, sexuaren, belarrien zerbait?)

Zure inguruan gauzak aldatzeko aukera izango bazenu, zer aldatuko zenuke?

Zure ustez, zer da haurra izatearen hoberena? (edo alderantziz) Zergatik?

Berriro jaio ahal izango bazina, nolakoa izan nahi zenuke? Utzi erantzuna zabalik edo lagundu: (altua?, baxua?, horia?, beltzarana?, mutila ala neska? haurra?)

Amets egitea gustatzen zaizu? Zein da gehien gustatu zaizun ametsa? Zu al zinen protagonista?

Haurrak beste sexu batekoa izan nahi izatea hitzez adierazten badu, orduan galdetu: Zergatik? Noiz? Nola sentitzen zara horren aurrean?

Iturria: (27).

3. Eranskina: Datu-base desberdinetako bilaketa-estrategiak.

Datu-basea	Bilaketa estrategia	Emaitzak	Iragazkiekin	Aukeratuak
Pubmed	((transsexualism[MeSH Terms]) OR (transgender[MeSH Terms])) AND (teenager[MeSH Terms])) AND (activities, educational[MeSH Terms])	166	66	17
	(transsexual[Title/Abstract]) AND (spain[Title/Abstract])	21	5	1
MedEs	("Personas transgénero@22732"[id_palabras_clave]) AND "Adolescentes@920"[id_palabras_clave])	4	–	4
	("Transexualismo") AND("Educación")	5	–	4
Dialnet	identidad de sexo y genero en niños	133	–	1
	transexualidad Euskadi	1	–	1
	transfobia educacion	31	–	7

Iturria: propioa.

4. Eranskina: Barneratze- eta kanporatze-irizpideak.

BARNERATZE-IRIZPIDEAK	KANPORATZE-IRIZPIDEAK
Nerabeetan zentratzea.	LGTBQA+ kolektiboa orokorrean lantzea.
	Ikerketa Estatu Batuetan zentratzea.

Iturria: propioa.

5. Eranskina: Programa ezagutarazteko, eskolako zuzendariari bidaliko zaion informazio-mezua.

Zuzendari hori,

Nahia Lertxundi naiz, UPV/EHU-ko erizaintzako 4. mailako ikaslea eta lantzen ari naizen proiektua dela eta bideratzen naiz zuregana.

Gaur egun hain pil-pilean dagoen transexualitatearen gaia adin goiztiarretik lantzeko osasun-hezkuntza proiektu batean ari naiz lanean. Honen helburua, lehen hezkuntzako 6.mailako nerabeek transexualitatearen kontzeptua eta honek barneratzen duena ezagutzea da, tolerantziatik abiatuta gerora izango dituzten harremanak osasuntsuak izateaz gainera, jarrera transfoboak murrizteko.

Gauzak horrela, osasun-hezkuntza programak 5 aste iraungo lituzke, aste bakoitzean 2 orduko saio bat emango litzakeelarik, goizeko 10etatik eguerdiko 12ak arte (beti ere, eskolako ordutegietara egokituz eta behar izan ezker ordutegiak moldatuz). Saioetan zehar, metodologia-didaktiko desberdinak erabiliko dira, bideoak, rol-jolasak, gogoetak... kasu. Gainera, kolektiboaren alde Euskadin lanean dabilen Naizen elkartetik, transexuala den gazte boluntario bat eramateko asmoa ere daukat, nerabeek landu diren gai eta kontzeptuak lehen pertsonan bizi dituen norbait ezagutu eta dituzten zalantzak argi ditzaten.

Hori dela eta, zuen eskolara pertsonalki joatea gustatuko litzaidake, programa bere osotasunean aurkeztu eta bera burutzeko aukerak analizatzeko.

Zalantzarik balego, helbide honen bitartez lasai jarri nirekin harremanetan: nlertxundi005@ikasle.ehu.eus.

Zure erantzunaren zain,

Nahia.

6. Eranskina: Baimen-informatua.

Familia agurgarria,

Zuhaizti Eskolan, LH 6.mailan transexualitatearen inguruan burutu nahi dugun osasun-hezkuntza programa dela eta bideratzen naiz zuengana, zuen seme-alabek parte-hartu dezaten eskatzeko.

Programa 5 saio desberdinetan dago banatuta eta eskolan bertan burutuko litzake. Hauek astean behin izango lirateke, 2 orduko luzapenarekin. Saioetan, transexualitatearen definizioa, haien bizipenak, haiekiko tolerantzia zein errespetua edota transfobia bezalako gaiak landuko dira.

Saio hauen bitartez, ikasleak transexualitatean trebatu eta gaiaren normalizazio goiztiarra eskuratzear gain, kalitatezko harremanak ere sustatu nahi dira.

Hortaz,

Nire seme-alabaren parte-hartzea onartzen dut

Ez dut nire seme-alabaren parte-hartzerik onartzen

Guraso/ tutore legalaren sinadura:

Data:

7. Eranskina: Edukiaren azpigaietako sailkapena.

AZPIGAIAK	AZALPENA
Zer da transexualitatea?	Gai honen bitartez, xede-taldeak transexualitatearen kontzeptua landu, honen definizioa ezagutu eta kolektiboak barne hartzen dituen oinarrizko kontzeptuak landuko dira.
Transexualitatearen onarpena.	Gai honekin, xede-taldeak denbora luzez norberarentzako izandako sekretua gordeta izan, kontatzea pentsatzeak eta azkenean kontatzeak eragiten dituen zailtasunak, ezinegonak eta bestelako sentimenduak landuko ditu enpatia bitartez.
Transfobia eta haren ondorioak.	Gai honetan, transfobiaren kontzeptua eta honen esanahia ulertuko du xede-taldeak, jarrera transfoboak zeintzuk diren ezagutu eta hauen identifikaziorako gaitasunak garatuz. Baita, nerabeengan dituzten ondorio negatiboak landu eta kolektiboko kideek sentitzen dutena ulertuko dute ikasleek.
Transexualitatearen normalizazioa.	Gai honi esker, transexualitatea zer den, kontatzearen zailtasunak eta ondoren sufritzen duten transfobia aurrez ezagutzen dutenez, transexualitatea egunerokotasunean modu normal batean eramaten erakutsiko zaie, tolerantzia eta errespetua oinarriztat hartuz.
Norberarekiko maitasuna	Gai hau norberaren burua den bezala maitatu, errespetatu eta gustatzeko dago eginda. Nolabait, gizarte heteronormatiboak barneratuarazi eta normaltasunarekin erlazionatuarazi dizkigun gorputz, pentsatzeko modu eta izaerak ere ondo daudela ulertu dezan xede-taldeak.

8. Eranskina: Osasun-hezkuntza programaren antolaketa.

SAIOAK	EDUKIA/GAIAK
1.SAIOA	Zer da transexualitatea?
2.SAIOA	Transexualitatearen onarpena.
3.SAIOA	Transfobia eta haren ondorioak.
4.SAIOA	Transexualitatearen normalizazioa.
5.SAIOA	Norberarekiko maitasuna.

Iturria: propioa.

9. Eranskina: Hezkuntza-teknikak.

HEZKUNTZA-TEKNIKAK	HELBURUA	TEKNIKAK
IKERKETA-TEKNIKAK	Ideien espresio eta mobilizazioa zein mito, sentimendu, ezagutza, eta esperientziak adierazi, hausnartu eta antolatzea, gaia nola bizi duten jakiteko	“brainstorming”, sareta, “fotopalabra”, galdetegiak, phillips 66, esaldi osatugabeak...
ANALISI-TEKNIKAK	Kausazko faktoreei, erlazioen alderaketari, konponbiderako alternatiben beharrari edo erabakiak hartzeari buruzko gaiak sakontzea, alderatzea eta nabarmentzea.	Panelen, esaldien, testuen, ipuinen, metaforen, abestien edota ikus-entzunezkoen analisia, debateak (talde txiki zein handian)...
AZALPEN-TEKNIKAK	Informazioaren transmititzea, kontrastatzea eta berrantolatzea.	Sintesi teorikoa, ikasgai parte-hartzailea, adituen panelak, mahai-ingurua, azalpen diskurtsoa, bizipen erreala...
GAITASUNEN GARAPENERAKO TEKNIKAK	Trebetasun zehatzak garatzea, egoera errealetan jokatzeko eta erabaki dituen aldaketak egiteko gaitasuna garatzeko.	Eszenifikazioak (“role polayng”), egoeren analisia, jolasak, simulazioak...

Iturria: (29). Moldaketa: propioa.

10. Eranskina: Letra-zopa eta definizioen fitxa.

Aurkitu itzazu bost kontzeptu azpiko letra-zopa honetan:

ETX **TRANSGENERO**REJ
LAGR **AZTUASTZ**KINLI
EZA **AAEGUNGFID**TKO
EDC **NNN-EJKIES**KPATJ
GZDSKEISKILBGAITER
EGDE **KKZKOÑJEL**KIKO
NLA **XRLETESTNERIE**FJ
EGE **UERO-AAL**EASUN
RER **AKEINTSUR**MRGNT
ORELEZDAGUJOKENDI
KANPIETXAM **NKEUME**
GENERO-ANIZTASUNK

Orain, lotu itzazu aurkitutako kontzeptu horiek azpiko definizioekin:

- Pertsonak esleitutako sexuaren arabera sailkatzeko, historikoki eraikitako ezaugarri sozial eta kulturalen multzoa da.
- Jaiotzean esleitutako sexuarekin bat ez datorren pertsona, interbentzio bitartez bere burua eraldatzen ez duena.
- Pertsonen desberdintasunak berdintasunaren ikuspegitik ulertzea.
- Jaiotzean esleitutako sexuarekin bat datorren pertsona.
- Jaiotzean esleitutako sexuarekin bat ez datorren pertsona, interbentzio bitartez bere burua eraldatzen duena.
- Pertsonak beren sexualitatea onartzeko, adierazteko eta bizitzeko zein onartzeko dauden aukera guztien gama.

Iturria: propioa.

11. Eranskina: Lehenengo saioa ebaluatzeko Kahoot-a.

1. Genero genitalek zehazten dute?
 - a. Egia
 - b. Gezurra**
2. Transexuala: jaiotzean esleitutako sexuarekin bat ez datorren eta...persona da.
 - a. interbentzio bitartez bere burua eraldatzen duen**
 - b. bere burua eraldatzen ez duen
3. Badaude alua daukaten mutilak eta zakila daukaten nekak.
 - a. Egia**
 - b. Gezurra
4. Aniztasuna bakoitzaren desberdintasunei kasurik ez egiteari esaten zaio.
 - a. Egia
 - b. Gezurra**

Iturria: propioa.

12. Eranskina: Termometro jolaseko galderak.

- Gorde al dut noizbait kontatu nahi dudan zerbait nire buruarentzat, besteek esan dezaketenaren beldur? (Zer uste duzu esan dezaketela besteek ba? Zer ez litzaizuke gustatuko esatea?)
- Eduki al dut kontatzea kostatu zaidan zerbaiten aurrean, gustatu ez zaidan erreakzioren bat? (Zein erreakzio? Nork izan zuen erreakzio desegoki hori?)
- Pentsatu al dut nirekiko ikuspegia aldatuko duela norbaitek, nire sekretu bat kontatuko banio? (Zergatik? Zer aldatu daitekeela uste duzu?)
- Sekretua kontatu ondoren, desberdin tratatu nautela nabaritu al dut? (Zein egoeretan nabaritu duzu desberdintasunen bat? Zein desberdintasun?)
- Oraintxe, ba al dut kontatzera ausartu ez naizen sekreturik?

13. Eranskina: Bigarren saioa ebaluatzeko Kahoot-a.

1. Mota desberdinetako sekretuak daude: handiak, txikiak, koloredunak...
 - a. **Egia**
 - b. Gezurra
2. Sekretuak kontatzeak ez du zailtasunik eragiten.
 - a. Egia
 - b. **Gezurra**
3. Denok daukagu sekreturen bat edo beste.
 - a. Gezurra
 - b. **Egia**
4. Definitu hitz batean sekretu bat kontatzeak eragiten dizuna: _____.

Iturria: propioa.

14. Eranskina: Itxurazko egoera.

“Imajinatu, aspalditik buruan daukazun eta egitea gustatuko litzaizukeen orrazkera egitera ausartu zarela, hainbeste ilusio egiten zizun hori. Zeinen ondo! Azkenean lortu duzu hainbeste nahi zenuen orrazkera egitea! Orain zure parte da!

Zuk egin duzun ilusio berdinarekin erakusten diezu zure ingurukoei orrazkera berria; familiari, lagunei... Baina haiek ez dute zu bezala ikusten. Izatez, gehiengoak arraro ikusten zaituela adierazten dizu, hurrengoan esanez: orrazkera hori ez da zuretzat, ez zaizu bat ere ondo gelditzen, hobeto zinen lehen, berriro aldatu beharko zenuke, ni zu banintz ez nioke beste inori erakutsiko, agian etxean geldituko bazina ez luke inork gehiagok ikusiko... Zuri bat ere gustatzen ez zaizkizunak.

Ez hori bakarrik, badago orrazkera zuretzat ez dela pentsatzen duen baten bat, hori aldatu nahian iletik tira egin edota guraizeekin ilea birmoldatzen saiatzen dena ere.

Ondorioz, zu ez zara hainbeste ilusio eta gogorekin egindako orrazkera horrekin kalera atera eta bizitza normala egiteko gai ikusten. Ez baitizu zure inguruneak horretarako konfiantzarik eman.”

15. Eranskina: Transfobia azaltzeko PowerPoint-a.



TRANSFOBIA

TRANSFOBIA:

Transfobia, gizarteak esleitutakoa alde batera utziz, bestelako genero-identitatea duten pertsonetikiko gorrotoa edo ezinikusi sakona da.

Pertsona hauek urrakorragoak bihurtzen dira, orokorrean, besteok baino marginazio, jazarpen, indarkeria eta iseka gehiago jasaten dituztelako.

TRANSFOBIA KONTSIDERATZEN DIREN JARRERAK:

- ISEKA EGITEA/BURLATZEA
- BAZTERTZEA
- EZIKUSIARENA EGITEA
- INDARKERIA ERABILTZEA
- BARRE EGITEA
- ESKUBIDEAK MURRIZTEA
- ...

NAHI GABE EGITEN DITUGUN EKINTZA TRANSFOBOAK:

- “Ez dirudizu trans-a” - esatea
- Ordun zu gizon ala emakume sentizen zara? - galdetzea
- Genitalen inguruan galdetzea.
- Genitalak sexu batekin identifikatzea.
- Pertsona bat atzera botatzea trans-a izateagatik.
- Sexuaren arabera desberdindutako komunak egotea.

Iturria: <https://chrysalis.org/8-cosas-transfobas-que-haces-sin-darte-cuenta/>

Moldaketa: propioa.

16. Eranskina: Hirugarren saioa ebaluatzeko Kahoot-a.

1. Nola esaten zaio transexualek jasotzen duten jazarpen multzoari?
 - a. Transeza
 - b. Transfobia**
 - c. Trans jazarpena
2. Hurrengo ekintzetatik zein ez da transfobia kontsideratzen?
 - a. Ezikusiarena egitea
 - b. Baztertzea
 - c. Gustu desberdinak izatea**
3. Transfobia:
 - a. Transexualen kolektiboak jasaten duen jazarpenen multzoa da.**
 - b. Transexualen nazio arteko egunaren izena da.
 - c. Transexualek atentzioa deitzeko egiten dituzten ekimenen multzoa da.
4. Eskola-ingurunean jarrera transfoboak identifikatuz gero, zeini abisatu behar diot?
 - a. Gurasoei
 - b. Irakasleei**
 - c. Inori

Iturria: propioa.

17. Eranskina: Laugarren saioa ebaluatzeko Kahoot-a.

1. Lur antzezlaneko protagonistaren generoa zein da?
 - a. **Neska**
 - b. Mutila
2. Zein da transexualitatearen normalizazioan laguntzen ez duen jarrera bat?
 - a. Tolerantzia
 - b. **Iseka egitea**
 - c. Errespetua
3. Zein da transexualitatearen normalizazioan laguntzen duen jarrera bat?
 - a. Iseka egitea
 - b. Jazarpena
 - c. **Tolerantzia**
4. Zer egingo zenuke zure lagun minak esleitu zaion generoarekin bat eza datorrela esango balizu? Adierazi labur.

Iturria: propioa.

18. Eranskina: Gure Kaiola abestiaren letra zatia.

GURE KAIOLA

Ze guapa zauden. Ze guapo zauden.
Zer da narratsa hemen ta zer da elegantea?
Zeinek esan behar dizu oain itsusia zeala?
Zeinek marraztu digu koadrantea? Zein dao erotuta ta zein da kabala?

Ilusio bat da errealitatea, ta gizonen bizio bat denai araua jartzea.
Norbeantzako horma bat da normalitatea.
Baino nik ez det izan nahi normala,
Ta zuk ezta re!

Etzealako artalde hontako zifra bat, etzea sartzen trajen.
Gezurren saren eroitzeie makina bat, goitik datorren papila jaten.
Beldurren aurren,
Heldu makila ta goazen, pareta mila dauzkeu ta gure paren.
Eta erreza ez dan arren.
Kareta kenduta zaudenen... ai! Ez dakizu ze sexy zauden

Ze guapo zauden mozorroik gabe, ta artaldek esan dezala Beeee
Ze guapa zauden horren lotsagabe, estereotipo danak hausten.
Ze guapo zauden mundu hau aldatzen, zure rola zalantzan jartzen.
Ze guapa zauden. Ze guapo zauden.

Gizontasun eredu nik izan nun Action Man,
zure emetasun modelo Barbie bat zan.
Eztao generoik genitaletan,
Egitura mentala da, aber sartze zaigun gaztan!

Iturria: (34). Moldaketa: propioa.

19. Eranskina: “Nor naiz ni?” fitxa.

Nor naiz ni?

Ni _____ naiz.

_____ izenez deitzea gustatzen zait.

Nola ikusten dut nire burua? Marraz zaituz.

Iturria:(35). Moldaketa: propioa.

20. Eranskina: Xede-taldearen azken ebaluaziorako galdetegia.

1. Zer da transexualitatea
 - a. Jaiotzean esleitutako sexuarekin bat ez datorren pertsona, interbentzio bitartez bere burua eraldatzen ez duena.
 - b. Jaiotzean esleitutako sexuarekin bat datorren pertsona.
 - c. **Jaiotzean esleitutako sexuarekin bat ez datorren pertsona, interbentzio bitartez bere burua eraldatzen duena.**

2. Nola esaten zaio jaiotzean esleitu zaion sexuarekin bat datorren pertsonari?
 - a. **Zisgenero**
 - b. Agenero
 - c. Transgenero

3. Genitalek ez dute norberaren generoa definitzen.
 - a. **Egia**
 - b. Gezurra

4. Erraza da transexualentzat haien egoera azaltzea:
 - a. Egia
 - b. **Gezurra**

5. Pertsona bati bere genitalen inguruan galdetzea _____ da.
 - a. Egokia
 - b. Normala
 - c. **Desegokia**

6. Nola deitzen zaio transexualen aurkako jazarpenari? _____

7. Transfobia kontsideratzen diren hiru ekintza zerrendatu:

8. Lagun batek transexuala dela esango balit:
- a. Ez nioke kasurik egingo
 - b. Behar nauenerako egongo naizela esango diot**
 - c. Nahastuta dagoela esango diot
9. Nire burua den bezala adierazi eta maitatzeko gai al naiz?
- a. Bai**
 - b. Ez
10. Nire buruarengandik gehien gustatzen zaidana _____ da.

Iturria: propioa.

21. Eranskina: Osasun agenteentzako ebaluazioa.

Prozesuaren ebaluazioa:

1. Ekintzak aurreikusiriko denbora-tartean eta moduan egin dira?

2. Erabilitako teknikak:
 - a. Erabilgarriak izan dira?

 - b. Taldeari egokituak izan dira?

3. Edukiak xede-taldearentzako egokiak izan dira?

4. Xede-taldekoen parte-hartzea egokia izan da?

5. Taldearen osaketa egokia izan da? (xede-taldearen ezaugarriak, partaide kopurua...)

Egitura eta baliabideen ebaluazioa:

6. Aukeratutako espazioa egokia izan da?

7. Landutako edukiak nahikoak izan dira?

8. Aukeratutako ordutegia eta saioen ordena egokia izan dira?

9. Erabilitako materialak aproposak izan dira?

Iturria: propioa.

22. Eranskina: Xede-taldearentzako ebaluazioa.

Bete ezazu osasun-hezkuntza programari buruzko galdetegi hau X erabiliz:

1:oso gaizki 2:gaizki 3:beno 4:ondo 5:oso ondo

	1	2	3	4	5
Ordutegia					
Edukia					
Saioen iraupena					
Erabilitako material/baliabideak					
Programa eskaini duten profesionalak					
Bizitzarako erabilgarritasuna					
Proiektua gauzatu diren lekuak					
Zure partehartzea					
Programarekiko iritzi orokorra					
- Aipatu programak izandako 2 alderdi positibo:					
- Aipatu programak izandako 2 alderdi negatibo:					

Iturria: propioa.